

Rosa itzuli da

PAKO ARISTI



n a r r t i b a •

erretika

ROSA ITZULI DA

Narratiba, 112

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2018ko azaroan

Azala:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Pako Aristi

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-312-1

L. G.: SS-1217/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Pako Aristi

ROSA ITZULI DA



Badirudi gaur amaituko dela dena. Hala esan dit preso sozial bategoizean, gosaldu ondoren patioan nengoela: *“Óyeme, ¿Tú eres la asesina de Maldonado Tuy? Han dicho tu nombre completo, Rosa Ugarteme... no sé qué... ¡Vaya apellidos que tu tienes, mi niña!”*. Bai, ni naiz, erantzun diot lotsati, hedabideek gure curriculumak aireratzeko daukaten ohitura, edo, zergatik engaina, “planifikazio politiko” madarikatuz. Goizeko seietan entzun duela irratian, aterako zirela hamar preso, *entre ellos la asesina de...* Bai, bale, ni naiz, nahikoa da. *“Óyeme, tremenda condena tu tienes, 560 años dijeron, calladico lo tenías, tan bonita y modosita como tú eres, con tu chándal, moviéndote...”*. Ihes egin behar izan diot, inora ihes egiterik ez dagoen espazioan nagoela ohartu gabe, hain urduri jarri naiz!

Preso honek maiz eskatu izan dit Monoi de Tahiti olio bisean bisekoetarako, gorputza usain gozatsuz eskaintzeko maitaleari. Luxu gutxi dauden lekuan, usaimenak urrezko balioa dauka, kanpotik datozenak barruan daudenekin lotzen dituen zubia, gehienetan sexurako autobidea. Ikusiak ditut hortzordeak ere bisean bisekoetarako alokatzen zituzten presoak. Hortz zuriek asko edertzen dute begiradak argitu ezin duen irribarrea. Gaixoak, sozialak. Urte bat edo bi ematen dituzte kartzelan,

droga kontuengatik, normalean. Askok ez dakite irakurtzen ere, funtzionarioen mende egoten dira edozer gauza lortzeko, haien trikimailuen sarean zapuztuta, xantaia asko irentsi beharrean. Preso politikoeak laguntzen diegu edozer instantzia betetzen, gutunak idazten... Hargatik estimatzen gaituzte. Haien bizi-gogo gazteetan ez da sartzen espetxean 25 urte pasa litezkeenik, burua galdu gabe. Eta gutxiago helburu politikoengatik, zeuretzat onura propiorik lortu gabe. Zer pertsona mota izan behar den halako zerbait egiteko, hori ez dute ulertzen, besteengatik entregatzea zure bizitzaren onena, edo okerragoa dena haientzat, herri batengatik, nazio batengatik, “*¿Qué nación y qué ostias!*”, abstraktuegia zaie. Baina hor dago koska, kartzelatik psikologikoki onik atera ala lur jota. Bazekiten aspalditik nengola espetxe hartan, aurretik beste batzuetan ere egona nintzela; ez zekitena zen haietako asko jaio baino lehenagotik eraman nindutela barrura. “Zu jaio zinenean ni hemen nengoen”, eta mamu bati bezala begiratzen dizute. Agian kanpoan begiratuko diguten bezala.

Atun bokata bat afaldu nuen atzo, tea egin nuen ondoren. Lo, normal. Hotz nengoen ateratzeko aukeraren aurrean, “noizbait” hori beti “inoiz ez” bihurtzen zela etsita, “hobe ez sinestea” esanda neure buruari. Duela hiru urte ere, bazirudien dena amaituko zela, baina kondenarik krudelena ezarri ziguten espetxeko atea geure aurrean zabaltzeko itzaropena egina genuenean, legea bihurrituz egonaldia beste hiru urtez luzatu zigutenean, atea gure gibelean beste mila bider ixten entzun beharra, propina ilegala, ilegala zela jakinda, baina Europak “ilegal” definitu artean indarrean egongo zela ziurtaturik. Europako epaitegien erloju motelak hiru urte haien pisua aurreko 22rena

baino astunago bilakatu zuen, eta ez nuen zama berririk erantsi nahi izan itxaropen ergelen bizkarrean. Isolamenduko urte haietan, kondenako guztietan, alegia, gogoia hezia neukan etorkizunaz gogoetarik ez egitera, gauzak benetan gertatu arte; gertatu ziren gauzetara enfokaturik, ez gerta zitezkeenetara. Etorkizuna zure esku ez dagoenez, pentsamenduak ez dezake deus erdietsi. Nire akatsa izan zen, portzentaje oso ñimiño batean bada ere, sinestea Espainiako legeen arabera aterata behar nuenean aterako nintzela; oso arriskutsua da errealitate aldentzea errealitate hori besteek antolatzen dutenean.

Goizeko 7:30ean altxatu nintzen, beti bezala. Hogeita bost urtez ordu berbera, hutsik egin gabe. Poltsarekin jaitsi nintzen, beti bezala. Zer daramat poltsan: liburu bat, komuneko papera, kiroleko gauzak, txankletak, galtza motzak eta krema, eta mahaitresnak. Bederatzietan ireki ziguten jangela. Han utziko dut poltsa, bazkalondoren ziegara jasotzeko berriro. Lau ordu ditugu goizean, gero ez gara gehiago aterako hurrengo egunera arte.

Belarrietan kaskoak jarri eta patioan ibili nintzen paseoan, musika entzuten, berriak entzuten, eta hamaiketako berrietan eman zuten albistea, baietz, Parot doktrina baliogabetu ondoren, bigarren talde bat aterako zela egun horretan bertan.

Bihotza taupadaka hasi zitzaidan, bun-bun, tunba-tunba, eta hainbestetan neure buruari esandakoa errepikatu nion eguzki gozotan: “Lasai, Rosa, lasai!”. Telefonora jo nuen arrapaladan etxera deitzeko: bazetozen, abokatuak abisaturik, anaia, lagunak. Pozik zeuden denak, urduri zeuden denak, bun-bun, tunba-tunba: 25 urteko epe bat amaitzera zihoan.

Espetxera sartu ziren monitoreek, ile-apainketa ikastaroak ematen zituztenek esan zuten kanpoa kazetariz beteta zegoela:

kamerak, mikroak, zuzeneko unitateak. Gogor jarri zitzaizkidan: “Zu ez zara kanpora horrela aterako, makillatu gabe. Guapa joan behar duzu”. Ezetz, ez nintzela *starlette* bat, baina ez nuen eztabaidari eusteko indarririk ez kontzentraziorik aurkitu. Makillatu ez, gehitxo zen, baina mototsik dotoreena egin zidaten, musu polita nuela eta ikus zedin, kameraren argia baino distiratsuagoa omen nuen irribarrea, Ana Rosa Quintanaren programan botako zuten berbera. “*Salió con gesto arrogante*”, halaxe esan zuten: “*La mirada altiva, orgullosa de sus crímenes*”. Nik, aldiz, ikararak bustitako poz bizi bat besterik ez nuen sentitzen.

Badirudi gaur amaituko dela dena; beraz, gaur hasiko da dena, hain ezezagun zaidan askatasunera ohitu beharra. Oroitzapenak ezabatuak dauzkat, zer zen hura, eta nola. Beldur baten zirrara mingotsa-edo izango da diafragmaren azpi-azpian; ez dut ezer bazkaldu, ezin ezer irentsi. Ordu bietan ziegara igo naiz, baina inork ez dit ofizialki ezer esan, “*¿Te vas?*” soil bat funtzionarioek, gauzak jasotzen eta kideen artean banatzen ikusi nautenean. “*He dado hasta el colchón, espero no pasar una noche más aquí*”. Ez dira nekatzen: jolasak azken minutura arte dirau.

Zazpiak arte ziegan, afaltzera jaitsi gara, ezer ez jateko, ezin ezer sartu guztiaz gainezka dagoen gorputz baten barnera. Bederatzietan baieztatu dit zerbitzuburuak: “*Tranquila, todavía no ha llegado nada oficial, pero sabemos que se va*”. Preso-jende guztia ziegetan itxia zuten ordurako, “txapatuta”. Bederatzia eta laurdenetan itzuli zen zerbitzuburua hiru funtzionarioekin. Oihua atera zitzaidan, korridore osoa zeharkatuko zuen aire-eztanda bat sarraila deblauki kendu zioten eztarri batetik: “Banoa!”.

Eta sozialentzat, gaixoak sozialak, nire azken hitza: “*¿Cuidaros!*”.

Orduan ziegetako atea jotzen hasi ziren barrutik, modulu osoan, alimaleko zarata espazio mortuaren erdian; omenaldia zen, kontzertua, protesta, intziria, guztien atera nahi kolektiboaren soinu batua, sentimenduen eztanda burdinaren aurka. Kartzeleroen aurpegiak tentsioan jarri ziren, gertakari bitxi baten lekuko ziren laster monotoniara itzuliko zen bizitzan. Eta haien begiradan, moduluko presa guztiak batzeko nire boterea aitortu nahi eza.

Hotzikara batek hartu zidan bizkarrezurra, eta garunak, eta oin-zuztarrak, balantza eginarazteraino. Bi minutu luze iraun zuen ardailak, 25 urteri emandako agurrak. Emozioa zerbait bada, huraxe zen, baina ez nuen negarrik egin, masailak sutan neuzkan arren. Urte asko neramatzan barruan, denek ezagutzen ninduten, kartzeleroek ez naute inoiz negarrez ikusi, eta azken minutu haietan ez nien plazer emango. Nire inguruan zeuden denak, horren zain bezala. Kartzelan sekulako lana egiten duzu sentimenduak ezkutatzeko, kartzeleroek ikus ez ditzaten. Intimitatea babesteko borroka bat da, sentimenduen erakustaldiak nor zaren sala ez dezan.

Hamarretan ireki zidaten espetxeko azken atea. Nik uste, agindua zutela albistegi guztiak igaro ondoren ateratzeko, Telediarrioko loriarik izan ez genezan. Biharamun goizeko albistegi ikuslez urrietara baztertu gintuzten: Estatuak ez ditu bere porrotak doan promozionatu nahi izaten.

Eta kartzelatik ateratzera nindoala, azken pausoak ematen, nire zain zegoen funtzionario batek bere aurrean gerarazi ninduen, *“Rosa, un momento”*. Ezaguna nuen, nola ez, ordura artekoa aski ez eta, halere, segundoak ebatsi nahi nire askatasunari: itxoin, gehiago ikusiko ez zaitudan piztia, ez dakit oraindik

zergatik aukeratu nuen lanbide hau, zu eta zu lakoekin igurtzi behar hau, soldatak soilik konpentsatzen dit nire barneko nazka hau sentitzea eta harekin oheratzea... Begiradan mila aldiz irakurri nizkion pentsamenduak. Iraina nahi zuen, baina omenaldia atera zitzaion besotik helduta:

–Por favor, ¿Me dices cómo has hecho para salir así?

Herraren erdian, ezin zuen ulertu zertan huts egin zuen, edozein izaki birrindu ahal izateko tresna guztiak eskura izanik, mendean eduki zuen piztiak nola egin zion ihes, onik, irribarretsu, oreka gehiegi galdu barik, ilea motots dotore batean jasota, ziotenez kameraren argia baino distiratsuagoa omen zen irribarre eta guzti, malko bat isurtzen ikusi gabe kartzela hartan igaro zituen urte haietan guztietan.

Goizeko 7:30ean esnatu naiz, harrituta, noraezean, izerditan. Ez dakit ez ote dudan amets egin... Erlojua ezin dut askatasunera ekarri, nire loak jarraitzen du 25 urtean ezarri zizkioten mugetan. Etxean nago bederen, eta ez kartzelan. Hasieran goizero baieztatu behar izaten nuen etxean nengoela, utzi didaten etxean, poliki-poliki nire bihurtzen ari den gelan: logela estandar bat azkenean!

Ez dut bat ere gogoko *espetxe* hitza, *etxe* daramalako bere baitan: gozotasun esparru bat, norbaitek suntsiketa eremu bat zuritzeko sortua. Hizkuntzalariek ez dakite ezer samina disimulatzuten duten hitzekin egin litekeen minaz. Akademian irudikatzen ditu batek, belusezko besaulki beroetan irribarretsua, *cárcel* hitzaren euskarazko parekidearen bila, hitzik ez egoteak adierazten duen osasun sozialaz ohartu ere egin gabe. Izan ere, usainak ditu bereizten hitz bien espazioak: etxeak Cola-cao lurrina du, kartzelak desinfektatzaile kerua zuen, edo desbizitzaren keru ustela, hizkuntzalari belusadunek adiera onartzen badidate. Etxea zurea da, baina kartzelan zu zara harena, eta zure lan guztia da ez zaitzan erabat *desbizitzaratu*.

Monoï de Tahiti con flores de Tiaré eguzki babeslea ematen nuen egunero gorputzean, koloniak debekaturik baitaude,

sozialek edan ez ditzaten, eta besoetan, lepoan, sorbaldatik bu-larrerako espazioan ematen nuen kremak esaldi berean elkartzen zituen preso eta funtzionarioak, bi arerioen arteko elkargune harri-garri bat marraztuz moduluen aire inbertsonalean: “*¡Que bien huele aquí!*”, esaten zuten denek.

Besterik ez denean, gorputza da etxe.

“Creyendo en lo que hice. He luchado por mi país”. Jarraian atera zitzaidan, prestatu gabe, urteetan kartzeleroen esan gabeko galderak airean idatzita ikusi ondoren, barnean garatu zitzaizkidan erantzunetako bat zen, nagusia, agian.

Ni ez nengoela han oiloak lapurtzeagatik edo droga saltzeagatik, proiektu batean sinesten nuelako baizik, *“qué proyecto es ese por el que...”*, eta *braust* moztu nion, menderakuntza nazionaletik askatzeko proiektu bat zela, proiektu armatu bat, gaur agian oso estetikoa izango ez dena, baina bere distira izan zuena ni hasi nintzen urte haietan. Munduko beste edozein leku estandar samarrean, gazte bati aurrean jarriko zitzaizkion itaunak –zer egingo dut bizitzarekin, ikasi egingo dut ala lana bilatzen saiatuko; eta ikasten badut, zer karrera eta non eta nola–, gure kasuan, bakar bat bihurtu zirela: erakunde armatu batean sartu edo ez. Estatuak erabiltzen dituzten tresna bertsuak direla gureak, biolentziaren indarra eta mehatxua; Estatuaren abantaila bakarra biolentziaren monopolioa dela, eta hori zalantzan jartzea deliturik gogorrena. Tamalez, gure akatsa dagoeneko ahulegiak izatea zela, ez Estatuak garaitzeko bakarrik, negoziatzera eserazteko ere bai.

“¡Vete ya!”, bere argumentu bakarra, *“me gustaría no poder contar que te conocí”*.

Esaten utzi gabe ETAn sartu ginenean kartzelaren aukera gure baitan zegoela jada, aiduru geneukana, hori edo tirokatuta hiltzea, zaila zela onik eta aske ateratzea. Komandoak beti erori izan dira, batzuetan izugarri, besteetan gutxiago; lehenago edo geroago, denak kartzelan daude. Sentimendu praktikoa bat zela, besterik ez, kartzelaren aukera zure bizi proiektuan txertatzera zeramana. Aurrez zeure buruari abisatu izan bazenio bezala: aukera handiak dituzu kartzelan bukatzeko. Eta burua, denborari aurre hartzen dakiena, esandakoa prestatzen hasten da pentsamenduok entzuten dituen une berean.

Handik aurrera, zure zeregin guztia, kartzeleroen aurrean modu duin batean agertzea izango da. Baina duintasuna ez da norbanakoarena soilik; badago duintasun kolektibo bat ere, aspaldi batean zure norabidea, jarrera eta ekintzak babestu zituenena. Jende batek onartzen zuelako, eman genuen guk pausoa.

Kartzelaren aukera irudikatzen, urteen buruan, espazioaren neurria ziegara mugatuz amaitzen duzu. “Oinarrizko unitate” bilakatzen da. Kartzelako marrazki-eskoletan ikasi nuen “oinarrizko unitatearen” funtzioa: irudi bateko zati guztien arteko proportzioak batzen dituen neurria da, ez du oso handi ez oso txiki izan behar. Behin aukeratutakoan, ondoren datozen figura guztiak neurri horrekiko duten proportzioan marraztuko dira.

Gaur itzuli naiz Britanico tabernara, anaiarekin bokata bat jatera. Hau al da ongiatorria egin zidatena? Atera berritan, izugarria iruditu zitzaidan jangela, gaur txikia eta estua begitandu zait bat-batean. Hogeita bost urtez begirada ziegaren neurrira murrizturik eduki ondoren, hura gainditzen zuen espazio oro

handia iruditzen zitzaidan, erraldoiak enparantzak eta kaleak, erraldoiak arkupeak, bebarruak, zabalak ezkaratzak eta bisitatu ditudan etxeetako egongelak.

Gauzen proportzioa ez da kartzelak murrizten duen gauza bakarra, ikusmena ere irentsi egiten du ziegak. Presoen begiak oso delikatuak dira. Usaimena onik mantentzen da, entzumena ere bai, baina begiak...

Gogoan dut Tenerifetik Huelvara eraman nindutenean. Lau urte isolamenduan egon ondoren, telebista txiki batean filmak ikustera ohituta, bat-batean, kartzelako ekitaldi aretora eraman gintuzten, pantaila handian zinea ikustera. Ez nuen ezer ikusten, irudi erraldoi haien abiadan dena lausotu egin zitzaidan, figura haiek gainezka egin zidaten, zorabiatzeraino. Goizetan ere babestu behar izaten dut argitik. Pertsianak jaitsita, orain arraia bat edo bi jaso, gero beste bat, apurka baino ezin izaten diot egun berriari nire begi-ninietan sartzeko baimena eman.

Ziegak utzi dio nire oinarrizko unitatea izateari, begia munduko proportzioen handitasun berrira ohitzen joan den heinean. Ohitu ez naizena da gure proiektuaren neurria murrizturik ikustera.

Sokaren bi muturrak dira presoarentzat funtzionarioak eta senideak; ama, batez ere, inoiz bakarrik utziko ez zaituen izaki ziur bakarra munduan. Sustraien gomuta oparitzen diote hauek bisitetan, telefono deietan, sustrai horiek erauzi nahi dizkieten besteen aurrean. Espetxe politikak herrimina sortzea du helburu, *desarraigo social* deitzen diote arau-liburukietan, presoak babes ingurunerik gabe uztea, familiarik kanpo, hizkuntzatik kanpo, erraiak hutsik gera daitezzen. Presoak desanparoen erortzen ikustea da funtzionarioen garaipena: “Nik zer egiten dut hemen, ama gaixo dago eta ezin diot lagundu; ez dut nire semea gauean lokartzen ikusten...”. Defentsa barik, askok ez dute herrimina gainditzen, eta haien konbikzio guztiak hasten dira urtzen, egunetik egunera desagertzen, ahulari zor zaion errukia badela nonbaiten pentsatuz luzatzen zaizkie egunak urtez urte, erruki hori aurkitzea desiratuz. Hain gauza sinpleak, gure errekek ez ikustea, mendiak, tupustean kalean aurkitzen ditugun ezagunak edo eskolako kide aldrebesaren umore baldarra bera, hutsune sendaezin bilakatzen da ziegaren zuloa erraietan kokatzen denean.

Desatseginena ez da ziega batean egotea, funtzionarioen esku egotea baizik, intimitaterik eza. Zure ziegan bakean uzten

bazaituzte, hori zerua da. Zerua ziegan, ziegakoak bakean ez uzteko entrenatuak baleude bezala.

Sokaren bi muturrak: bata hurbilegi, bestea urrunegi. Ama, batez ere. Presoari bizitza eman ziona; sokaren beste muturretik, presoari kendu nahi liokeena, legearekiko errespetu derri-gorrezkoagatik ez balitz. *La muñeca diabólica* deitzen genion funtzionario hura bezala, ilehoria, ederra, gaiztoa, “*si no fuera por este uniforme, las machacaba a ostias*” esaten zuena ETAk ekin-tza gogor bat egiten zuen bakoitzean, preso sozialak politikoen aurka berotu nahian. Egun horietan, patioan irakurtzen ere, atzera begira jardun behar izaten genuen. Krudelenak, halere, funtzionario gazteak ziren, legeak berak ere gaztetasunari uste zaion suhartasuna salbuetsi ezin balu bezala, ETAkoeekin putakume portatzeak domina zekarkielakoan edo. Funtzionario zaharrak lasaiagoak ziren, gorrotoa ere, adinarekin beste guztia bezala, higatu balitzaie bezala.

Bi mutur, eta batean dago faltan sentitzen den guztia: lagunak, kalea, urteroko erritualak, ahazten joan zaizkizunak, bisitariak gogoratzen dizkizuten arte; San Juan gaua zen atzo, edo inauteriak dira gaur, jendea mozorrotuta dabil, gaupasa eginda etorri naiz, txokolatea txurroekin jan dugu Tolosan abiatu aurretik. Ahanzturaren aurka informazio egarrria pizten da, iristen den guztia irakurriz ere asetzen ez dena, *Argia*, *Berria*, *Gara*, herri aldizkari eta euskaraz inprimatua datorren edozer, eta albistegiaren zelatatzea egunero, Espainiakoak, noski, barruan mugitzen ez den mundua kanpoan mugitzen ari ote den. Itxaropen baten egarrria.

Sokaren bi mutur, sarritan irrati uhinen hari mehe batek lotzen dituenak. Badira asmakizun teknologiko batera iltzatuta

geratzen diren belaunaldiak. Gure amak irratia entzun izan du beti. Sukaldean irudikatzen dut, jogurt bat jaten, edo platano bat apika, bere eguzki kolore eta guzti. Irratia zaharra da, eta interferentziak ditu, Maritxuren garunak bezala. Baina egunotan urduri dabil, esan diote zerbait, errepikatu diote gogoan har zezan. Atzo entzun du albiste berbera, ziurrenik, baina jada ez du gogoan; askatasunaren albisteak merezi du egunero entzutea:

“Giza eskubideen Europako Auzitegiaren ebazpena behin betikoa izan zen, eta loteslea Espainiako gobernuarentzat. Honenbestez, 2006an Parot doktrina ezarri zitzairen preso guztiak legez kanpoko espetxealdian egon dira orain arte, eta hasi da haiek aske uzteko prozedura”.

Maritxuk irratiko gizontxoarekin hitz egiten du maiz.

Bazen garaia, Jaungoiko maitea... Ez zagok deretxorik, hainbeste urte preso! Nahi dutena egiten ditek zerri horiek.

“Hirurogei preso inguru daude egoera berean, eta atzo goizean iritsi zen Auzitegi Nazionalaren agindua, bigarren multzoa aske uzteko. Halere, espetxe atarietara joandakoek esan zuten ez, iluntzeko albistegiak amaitu arte itxaron zuten presoak askatzeko. Ez zuten publizitaterik nahi, biktimak ez mintzeko. Besteak beste, atzo atera ziren Jose Aska... rostegi amena... is Maria... gerri...”.

Ez hadi orain isildu... egun osoan tartarika jarduten bada-kik ba!

Diala darabil Maritxuk beste hizkuntza bat aurkitu duen arte. Arraioa! Beste tonu bat dauka honek, arrotzarena, euskaraz gertaera pozgarria zirudienari kondena enbatak gehituz trumilka.

“No podemos estar más en desacuerdo con la resolución, es un flagrante insulto... Soraya nos pide paso desde la cárcel de Oliva Blanca, Jaén...”

Esango al duzue, noizbait... Hitzzen zirimirien artean izen baten bila ari da Maritxu, jogurta erdi janda utzirik, edo platanoa; izen horixe entzungo balu, diamantetzko izen hori.

“Rodeada de cámaras, flashes y micrófonos, como una estrella en la pasarela de San Sebastián, el pelo recogido y el rostro erguido, salió cerca de media noche Rosa Ugartemendia Sarobe...”

Bihotzeko taupadak azkartu dizkio plastikozko kutxa hartatik ihesi atera diren hizkiek, beirazko hizkiak metalezko ahots batek esanak, Rosa, kriskitin eginez, “Ugartemendia”, eta azkenik, berak ezarritako zigilua, “Sarobe”, hizki hauskorrak, aiera atera orduko atmosfera erasokor batekin talka eginez lehertuko balira bezala. Arnasa sakon hartu behar izan du, alaba atxilotu zuten egunetik ikara larri bat hanpatzen zaio erraietan edozein irrati, telebista eta enparauetan izenak aipatzen hasten direnean, zoritxarraren zerrendak osatuz: hildakoak, desagertuak, atxilotuak, epaitegietara eramanak... Eta orain bere alabaz mintzo dira denak. Harriturik entzuten du ikusiz albisterik ederrena nola etsipenezko amorru tonuz janzten duten. Irratiak ez du Maritxuren pozik; izarra daitezela!

El pelo recogido, y el rostro erguido... kontxo!

Jogurta bukatu du ziurrenik, poto bazterrak koilaratxoarekin ongi arakatuz, sukalde txiro hartan denok egiten genuen legez. Edo platanoa.

“Fuera la esperaban familiares y amigos, con ikurriñas que no servirán para tapar sus delitos de sangre. Participó en aquel sanguinario comando de infausta memoria que aterrorizó a toda una

ciudad durante los años más feroces de la banda, experta en explosivos y en camuflaje, vestía elegantemente para ir a accionar...”.

Vestía elegantemente, kontxo...

Gogoak Maritxuren oroimenari baimentzen dizkion pentsamenduak: Non hago?, zenbat denbora daraman etxera etorri gabe?, zenbat kilometro zeuden? Urtebete kilometro bai... Zenbat bazter zikin ikusi behar izan dugun hi ikustera joateko... Eta baimentzen ez dizkionak: Zer egin huen, zertan sartu hintzen, hain guapa izanda, konkistatuko huen zeinahi, huraxe, baina hik kaskoak berotu zizkinan txakal haren atzetik joan behar, lastima bizitzako urterik ederrenak kartzelan pasa izana...

Irudikatzen dut, gu Etxegaraten behera, ama soinekorik onena janzten. Imanol geratu omen da bera jasotzeko, familiako lagunik leialena. Maizter hartu zuen ama beraren pisu batean, eta hura behekoan bizi denez, ia egunero zaindu du arretaz Maritxu. Nik ez nuen ama etortzerik nahi, baina zeinek eutsi hari etxean!

Abenduaren hotza dakar Imanolek soinean, ilun goiztiarra zamarra lodian itsatsita. Bere giltzarekin ireki du atea, Maritxuri atera etortzeko betarik eman gabe.

–Iritsi al da?

–Oraintxe deitu dute, Etxegaraten behera datozela. Hemen dira amen batean. Toledon egin omen dute lo, ostatu batean. Goazen Britanicora. Rosa itzuli da!

Besoa eskaini dio Imanolek, askotan bezala. Maritxuk tinko oratu dio, inoiz baino tinkoago.

–Berokia, Maritxu? Hortxe utzi nizun ba, sofa gainean. Ahaztu, berriro?

–Ahaztu? Naizen baino eskasago egiten nauzu. Beroa daukat, ezin naiz neure baitan errenditu.

–Jertse hutsarekin, izoztuko zara, emakumea! Abendua kapaz da *braust* lepotik heldu eta martxora arte katarroa hortxe pega-pega eginda uzteko!

Gero jakingo nuenez, alaba espetxean zeukala izan da urte hauetan guztietan Maritxuk inoiz ahaztu ez duen gauza ia bakarra, eta, askatasun hurbilaren zurrumurrak zabaldu zirenetik, lau hilabete eman ditu gaiaz hizketan aurrez aurre egokitzen zitzaion orori. “Bazen garaia! Bazen ordua irteteko, ez dago derretxorik, hainbeste urte entzerratuta!”.

Irudikatzen dut, Imanolek prestatu zion berokia baztertu eta, “hori ez, gizona!”, armairua zabalik, dotoreenaren bila.

–Gaur jaietakoa tokatzen da. *Elegantemente* joan behar dut, alaba bezala!